



Azalpen txostena, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruz.

Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Equilibrio Territorial Verde respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.

Ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horien jardun-arloak eta eginkizunak finkatzen dituena, onartu ondoren, Lurralde Oreka Berdeko Departamentua sortu zen.

Tras la aprobación del Decreto Foral 4/2023, de 30 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, se creó el Departamento de Equilibrio Territorial Verde.

Departamentu horren egituran Nekazaritzako eta Lurralde Orekako eta Mendietako eta Natura Ondareko zuzendaritza nagusiak hartzen ditu.

Dicho Departamento se estructura en las direcciones generales de Agricultura y Equilibrio Territorial y de Montes y Patrimonio Natural.

NEKAZARITZA ETA LURRALDE OREKA

AGRICULTURA Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko ahaleginak zenbait programetan biltzen dira: muga naturalak dituzten guneeetarako languntzak, NBP-ko konpromisoetako laguntzak, Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiategiak Modernizatzeko Plana. Horretaz gain, toki entitateei zuzendutako laguntza lerroak mantentzen dira: landa bideak eta landa garapeneko inbertsioak.

Además de los créditos contemplados en los programas dirigidos a favorecer la competitividad del sector agroganadero (líneas de ayudas a zonas con limitaciones naturales, ayudas para compromisos de la PAC y Plan de modernización de explotaciones agroganaderas), se mantienen las líneas de ayudas dirigidas a entidades locales: caminos rurales e inversiones de desarrollo rural.

Baserritar mixto profesionalei zuzendutako laguntza lerro berri bat jarri zen martxan 2025ean, "Gipuzkoako Herritarren Batzarra" ekimenaren barruan; laguntza horiek 2026an mantentzea aurreikusten da.

En 2025 se lanzó una nueva línea de ayudas para Baserritarras Mixtos Profesionales, dentro de las actuaciones de la iniciativa "Asamblea Ciudadana de Gipuzkoa", ayudas a las que se prevé dar continuidad en 2026.

Sektorean asoziazionismoa eta lan kolektiboa bultzatzen duten sektoreko elkarteei zuzendutako laguntza izendunak egonkortzen dira. Era berean, aurrera daramaten jardueren berrikustea eta gaurkotze prozesuarekin jarraituko da; hortaz, erakundearen eta azpisektore desberdinen artean partekatuta, definituko diren behar eta erronka berriei erantzuna emango zaizkie.

Se consolidan las subvenciones nominativas a las asociaciones sectoriales que promueven el asociacionismo y el trabajo colectivo en el sector, a la vez que se continúa con el proceso de revisión y actualización de las actuaciones que desarrollan, de manera que respondan a las nuevas necesidades y retos que se definan de forma compartida entre la institución y los distintos subsectores.

Nekazaritza lurren kudeaketarako ahalegina mantentzen da, Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritzaren lankidetzan estuan.

Se mantiene el esfuerzo en la gestión de suelo agrario, estrechando la colaboración con la Dirección de Montes y Medio Natural.

Etorlur Gipuzkoa Lurra, SA-ren aldeko ekarpenak mantentzen dira, sozietate publiko horri esleitutako eginkizunei begira, batez ere, gutxiegi erabilitako higiezinak birgaituz, Gipuzkoako landa-udalerrietan etxebizitzak sustatzeko ekimena bultzatzeko.

Se mantienen las aportaciones en favor de Etorlur Gipuzkoa Lurra, S.A., de cara a las funciones asignadas a dicha sociedad pública, especialmente, para impulsar la iniciativa de promoción de viviendas en los municipios rurales de Gipuzkoa, mediante la rehabilitación de inmuebles infrutilizados.



Helburu nagusienetako bat burokrazia gutxitzea da. Horretarako, informazio sistemak optimizatzeko lanekin jarraitzea aurreikusten da. Era berdinean, Departamentuko bi zuzendaritzen funtzionamendu eta barne antolakuntzaren oinarritzko hobekuntza eremuak identifikatuta, hauek ezartzearekin jarraituko da.

La reducción de la burocracia sigue siendo uno de los objetivos primordiales y para ello se prevé continuar con los trabajos de optimización de los sistemas de información y la implantación de los ámbitos de mejora en el funcionamiento y organización interna de las dos Direcciones del Departamento.

MENDIAK ETA NATURA ONDAREA

Baso jarduera mantentzeko eta suspertzeko ahaleginekin jarraitzen da, sektoreari zuzendutako laguntza deialdien zenbatekoei eutsiz: birlandaketa, lursailletara sarreraren hobekuntza, suteek, natur hondamendiek eta zorigaitzek basoetan eragiten dituzten kalteei aurre hartzeko jarduerak eta baso makineria erostea sustatzen dira. 2026ko aurrekontuan laguntza lerro bat sartzen da -2025eko urtean zehar sortutakoa-basoetako kalteei aurre egiteko, batez ere pinuen azikulen bandengatik kaltetutako pinudien mozketa ("banda marroia") laguntzeko.

BSTK Fundazioari zuzendutako ekarpenak mantentzen dira, Lurraldeko baso ondarea kudeatzeko fundazio horri esleitutako eginkizunei begira.

Mendiko larreak kudeatzeko ahalegina indartzen jarraitzen da Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritzaren laguntzaz, lan taldeekin sortutako dinamikak sustatuz. Lan ildo horrek dagokion toki entitateekin (Udalak, Enirio-Aralar Mankomunitatea...) lankidetzan estuan lan egitea eskatzen du.

Habitata eta naturagune babestuak mantentzeko eta zaintzeko ahalegina mantentzen da hainbat Europako programetan (LIFE, NEXT) parte hartuz.

MONTES Y PATRIMONIO NATURAL

Se continúan incrementando los esfuerzos para el mantenimiento y reactivación de la actividad forestal, manteniendo el importe previsto para las convocatorias de ayudas al sector: se promueve la replantación, la mejora de accesos a los terrenos, las medidas de prevención de daños por incendios, desastres naturales y catástrofes en masas forestales, así como la adquisición de maquinaria forestal. Se incluye en el presupuesto de 2026 una línea de ayudas para reparación de daños en los bosques, puesta en marcha durante 2025, con el fin principal de subvencionar la corta de arbolado afectado por las bandas de las acículas del pino ("banda marrón").

Se mantienen las aportaciones en favor de BSTK Fundazioa, de cara a las funciones asignadas a dicha fundación en la gestión del patrimonio forestal del Territorio.

Se continúa reforzando el esfuerzo en la gestión de pastos de montaña en colaboración con la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural, con las dinámicas surgidas con los grupos de trabajo creados. Esta línea de trabajo supone estrechar la colaboración con las entidades locales correspondientes (Ayuntamientos, Mancomunidad de Enirio-Aralar...).

Se mantiene el esfuerzo de conservación y mantenimiento de hábitats y espacios naturales protegidos participando en diversos programas europeos (LIFE, NEXT).




09 Departamentua LURRALDE OREKA BERDEKO DEPARTAMENTUA/

Departamento 09 DEPARTAMENTO DE EQUILIBRIO TERRITORIAL VERDE

(Mila eurokotan/Miles de euros)

Programak	LANGILEAREN GASTUAK 1	ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2	FINANTZA GASTUAK 3	TRANSFER. ARRUNTAK 4	KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5	INBERTSIO ERREALAK 6	KAPITAL TRANSFER. 7	FINANTZA AKTIBOAK 8	FINANTZA PASIBOAK 9	AURREKONTUA GUZTIRA
Programas	GASTOS DE PERSONAL	G.TOS.CTES. BIEN.Y SERV	GASTOS FINANCIEROS	TRANSFER. CORRIENTES	CONTINGENC. IMPREVISTOS	INVERSIONES REALES	TRANSFER. DE CAPITAL	ACTIVOS FINANCIEROS	PASIVOS FINANCIEROS	TOTAL PRESUPUESTO
01. Lurralde oreka berdeko zerbitzu orokorrak/ Servicios generales de equilibrio territorial verde	1.251,66	285,89				2.347,10				3.884,65
10. Landa Garapena eta Nekazal Egiturak/ Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias	2.826,10	1.452,46		9.023,25		122,50	5.345,35	650,00		19.419,66
11. Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua/ Servicio de Inspección y Control	2.035,92	956,02				31,44				3.023,37
12. Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osa Promoción y Sanidad Agro-ganadera	821,22	2.459,81		1.716,54		19,00				5.016,57
20. Mendiak eta Habitaten Kudeaketa/ Montes y Gestión de Hábitats	5.237,67	1.151,60		1.748,52		1.597,32	4.186,15	1.000,00		14.921,26
21. Basa Animaliak eta Landareak/ Fauna y Flora Silvestre	1.427,65	954,33		280,00		322,74				2.984,71
Departamentua Guztira Total Departamento	13.600,22	7.260,10		12.768,31		4.440,10	9.531,50	1.650,00		49.250,22



- 1. LANGILEAREN GASTUAK/GASTOS DE PERSONAL
- 2. ONDASUN ETA SERB.OHIKO/G.TOS.CTES. BIEN.Y SERV
- 4. TRANSFER. ARRUNTAK/TRANSFER. CORRIENTES
- 6. INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES
- 7. KAPITAL TRANSFER./TRANSFER. DE CAPITAL
- 8. FINANTZA AKTIBOAK/ACTIVOS FINANCIEROS